



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

### **PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA**

Uztailaren 16tik 26ra bigarren fasea egingo da  
**Zortzi proposamen lehenesteko 2021eko Partaidetzako Aurrekontuetan**

Uztailaren 16tik 26ra, 2021eko Parte-hartze izaerako Aurrekontuen bigarren fasea egingo da eta bertan aurtengo urtarrilean egindako lehenengo fasean aurkeztu ziren 1.093 ekarpenetatik hautatutako zortzi proiektuak lehenetsi beharko dituzte hiritarrek. Ezarritako prozeduraren arabera, udaleko teknikariek aztertu ondoren, zortzi proposamenetan zehaztu dira ekarpenak. Proposamen horiek, interes orokorrekoak izateaz gain, herriko hainbat eremu eta auzo hartzen dituzte. Aurrekoetan bezala, Udalak gehienez milioi bat euroko partida erreserbatu du partaidetzako aurrekontu hauei lotutako proiektuak gauzatzeko.

16 urtetik gorako eta Getxon erroldaturik dauden pertsonak eta Udalaren erregistroan inskribatutako entitateen ordezkariak, hautatutako proiektu **GUZTIAK** baloratu eta puntuatu beharko dituzte (zortziak, haien ustez daukaten garrantziaren arabera):

1. Adinekoen nahi gabeko bakardadearen kontrato baliabideen katalogoa: 22.000 €
2. Txakurrentzako aisiarako eremuak: 12.000 €
3. Igogailua Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan: 150.000 €
4. Bidegorri sarea zabaltzea: 300.000 €
5. Santa Anako 'haur' parkea berritzea: 48.000 €
6. Tokiko merkataritzan kontsumoa sentsibilizatzeko, laguntzeko eta sustatzeko kanpaina: 60.000 €
7. Bizikleta publiko elektrikoaren alokairua eta aparkaleku segurua, bizikleta eta NMP (Norberaren Mugikortasunerako Ibilgailua) pribatuak kargatzeko guneekin: 400.000 €
8. Zaharberritzeak Villamonteko Kultur Aretoan: 155.200€

### **Nola parte hartu**

Kanal hauen bidez parte har daiteke:

1. Areetako, Algortako eta Udaletxeko Herritarren Arretarako Bulegoetan zein Fadurako kiroldegian, Villamonteko Kultur Aretoan eta Romo Kultur Etxea-RKEN dauden hautestontzietan eskuragarri izango diren inprimakiak betez eta entregatuz.
2. Webguneko inprimakiaren bidez: [www.getxo.eus/participa](http://www.getxo.eus/participa)



# Getxo

*bizi ezazu*

3. Eskaneatutako inprimakia [gobernuirekia@getxo.eus](mailto:gobernuirekia@getxo.eus) helbide elektronikora bidaliz.
4. Inprimakia Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokien inguruan horretarako jarri diren postontzietan utziz.

Informazio gehiago:

<https://www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto/participacion/presupuestos-participativos-2021/>

GetxoUdala  

**Prentsa Bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.